

# OSASUN ETA BIZI KALITATEA

Unitatearen ekintzen gehiengoa **FIK**-en esparruan egiten da. Ekimen pribatu honek, zaharren eta minusbaliatuen alorrean lan egiten du.



## Co- Control: gurpil-aulki elektrikoentzat kontrol adimenduna



Patentatua

Kontrol sistema adimenduna gurpil-aulkien segurtasun eta gidatze erraztasuna hobetzeko.

Erabiltzailearen eta gurpil-aulkiaren arteko kontrol kooperatiboan oinarrituta dago. Gainera, beste pertsonekin eta oztopoekin talkak eragozteko sentsore sistema du.

## GEA: urruneko laguntza eta lokalizatze gailua



GEA alarma mugikorrak, erabiltzailea momenturo komunikatuta eta lokalizatuta izateaz gain, erorketa

detektagailu automatikoa eta alarma adimendun multzoa ditu.



Patentatua



Patentatua

## Headmove



Goi gorputz-adarretan mugikortasun arazoak dituzten pertsoneri, buru mugimendu naturalen bidez gailu periferikoak kontrolatzea ahalbidetzen dien interfazea da.

Adibidez: gurpil-aulki elektrikoak, ordenagailuko sagua, multimedia sistemak, domotika sistemak, etab.

## Vida: domotika kontrol eskuragarria



Ingurune domotiko eta eskuragarrietako kontrol sistema. VIDA, diseinu unibertsalaren gida-lerroak jarraituz garatu da. Sistema honek, etxeko ekipamendu

elektrikoaren jarraipen, kontrol eta gainbegiratzea ahalbidetzen die zahar eta minusbaliatu talde desberdinei.

## Displayer: display irakurlea

Karaktere alfanumeriko eta ikonografiadun display irakurle mugikor eta nonahikoa. Ikuste artifizial, teknologia semantiko eta ahots sintesi algoritmoak

aplikatuz, ikusmen arazoak dituzten pertsonen informazio eskurapena errazten die.



## Bluetype: braille bluetooth teklatua

Autonomia handiko eta tamaina txikiko haririk gabeko braille teklatua.

Teklatua gailu desberdinetara konekta daiteke: (PDA, ordenagailua, telefono mugikorra, ...) Bluetooth, IrDA, USB eta RS232 bidez.

## Walkaround: neuroerrehabilitaziorako terapiak

Neuroerrehabilitazio terapiak jasotzen ari diren pertsonen orekari laguntzeko Ibiltzaile mugikorra.

Ibiltzaileak neuroerrehabilitazio prozesua azkartzea errazten du.



## Freezing: Parkinson gaixotasunean gertatzen diren blokeo egoeretarako detektagailua

Parkinson gaixotasuna duten pertsonen izaten dituzten blokeo egoerak detektatzen eta

mugimendua berritzen duen gailua. Gailu honek blokeo egoeratik azkar ateratzea ahalbidetzen die gaixoei.

